

BAZKIDEAK/HORNITZAILEAK

Gure enpresa Sozietate Anonimoa (SA) izango da, eta bazkide bakoitzak diru ekarpen bat egingo du proiektua aurrera eramateko. Bazkide hauek ez dira beharrezkoak gure enpresako langileak izateko, baizik eta inbertsio emaileak izango dira. Hauek diru ekarpena egingo dute, hau da, akzio bat erosteko. Bazkideei irabazien atal bat



emango diegu, haien inbertsioa aitortuz. Hasteko, gutxienez 60.000 euroko inbertsioa egin behar dugu, baina hasieran diru hori ez dugu, eta, beraz, hasieran banako enpresa moduan funtzionatuko dugu. Akzioak jartzen dituzten bazkideen laguntzarekin, enpresa SA bihurtuko dugu, eta horren truke, beraiei irabazien portzentaje bat emango diegu.

3.1.HORNITZAILEAK:

Hornitzaileak funtsezkoak dira enpresaren jarraitutasunerako eta eraginkortasunerako. Erakunde bakar batek ezin ditu bere behar guztiak bere kontura ekoiztu, eta horregatik, hirugarren bat behar du beharrezko baliabideak lortzeko. Enpresa- eta lanbide-munduan, hornitzaileak pertsona fisiko edo juridikoak dira, beste erakunde baten behar espezifikoiei (ukigarriak edo ukiezinak) erantzuten dietenak. Beste hitz batzuekin esanda, hornitzaileak arduratzen dira enpresak ekoizpen-lanetan hasteko edo jarraitzeko behar dituen materialez eta zerbitzuez. Gure zerbitzua eskaintzeko, hornitzaile batzuk behar ditugu. Gure kasuan, zerbitzu-hornitzaileak izango dira, hau da, enpresaren behar ukiezinak asetzea dutenak, produktuak ez diren elementuak eskaintzen dituztenak. Gure aplikazioaren oinarria sustatzeko, kanpoko teknologia-hornitzaile bat kontratatu behar dugu, zeinak aplikazioaren oinarrizko egitura garatzen lagunduko duen. Gure enpresa barruan aplikazioaren diseinua egingo dugu, beraz, ez dugu beste hornitzaile baten beharrik.

3.2.BAZKIDEAK:

Bazkideek gure enpresan dituzten funtzioak honako hauek izango dira: kapitala edo ezagutzak ematea, kudeaketan eta erabakietan parte hartzea, enpresaren jarduerarekin lotutako onurak eta arriskuak partekatzea, eta zerga- eta erantzukizun fiskalak betetzea.

Erantzukizunari dagokionez, mugatua izango da; hau da, enpresak porrot egiten badu, sozietatearen partaide gisa ez gara erantzule izango.

Hasieran, enpresaren abiarazteko 3.000 euro jarriko ditugu. Irabaziak lortzen joan ahala, bakoitzak %25eko ekarpena egingo du 60.000 euroko inbertsio osoa lortu arte. Zergak ere modu parekatuan banatuko ditugu; hau da, zerga-erantzukizunak guztien artean banatuko dira. Horren bidez, sozietate anonimoa sortuko dugu, guztiek parte hartuz eta erantzukizuna modu bidezkoan banatuz.



